



2012
TXOSTENA



Erakunde Publiko Finantzatzaileak



OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO



ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Gizarte Ekintza Saila
Departamento de Acción Social



Erakunde Pribatu Finantzatzaileak

BBK - Bilbao Bizkaia Kutxa ■ Víctor Tapia eta Dolores Sáinz Fundazioa ■
Bizkaiko Elikagaien Bankua ■ Carmen Gandarias Fundazioa ■ Cáritas



■ Egoitza:

Langaran, 14 - behea. 48004 - Bilbo
Tel. 94 608 70 08 - Faxe. 94 608 70 09
bizitegi@bizitegi.org / www.bizitegi.org

■ Programa Dibertsifikatua:

Irumineta, 28 - behea. 48004 - Bilbo
Tel. 94 412 65 76 - Faxe. 94 411 60 88

■ Droga-mendekotasunen Programa:

Belategi Enparantza, 7 - behea. 48002 - Bilbo
Tel. 94 444 25 88 - Faxe. 94 421 20 18

■ Etxerik Gabekoak Programa:

Sakelakoa. 688 682 532

Bizitegi 2012... bizitzen historia bat

Posible da Bizitegiren bizitzaz hitz egitea *bizitz*ez hitz egin gabe. Txostenak apain-apain ordena daitezke, kolorez bete eta aise irakurri.

Alabaina, arretaz eta bihotzez aztertzen ditugunean, pisu izugarria dutela ohartzen gara: pertsona askoren bizitzaren pisua, egoera askorena, ahalegin askorena, arrakasta askorena, bai eta frustrazio askorena ere.

Lan-jantzia soinean dugula soilik uler daitezke, benetan, txostenok. Gogora datozkit Espali Fundazioak *Herritartasuna eta GKEak* argitalpenean jasotako hitz batzuk:

“Jabetzen gara, hirugarren sektorearen parte garen aldetik, handikeria eta idealizazio handiegiz aldarrikatu eta barneratu dugula geure burua alternatibatzat, aintzat hartu gabe sortu garen modu berean desager edo lauso gaitzkeela, eta bizi dugun krisi egoera honetan, ez dugula erakutsi ustez genuen indarririk”.

Argi dago hitz horiek behar bezala ulertzeko ezinbestekoa dela bizi garen uneotan kokatzea. Ezer ez da izango, aurrerantzean, orain arte izan den bezalakoa. Garai aldaketa baten aurrean gaude, guztia hankaz gora jartzen ari dena, baita GKEak eta Bizitegi bera ere.

Aurrekontu publikoen murrizketen aurrean, GKEok geure buruari galdetu behar diogu zergatik gauden ikararuta, dardarka. Ez da bada izango gure erakundeotan ekonomiak pisu handiagoa izan duelako oinarri sozialak baino? Ez da bada izango zerbitzu zehatzen eskaintzak indar handiagoa izan duelako, politika barne, gizartearen aldaketan izandako eraginak baino? Ez da bada izango GKEotako profesionalen pilaketak ahuldu egin duela elkarrearen, boluntarioen eta kolaboratzaileen presentzia?

Egoera berri hau ezin daiteke izan, ordea, GKEontzako zigor bat. Aitzitik, gogorarazi egin behar digu lagungarri izan behar dugula; jada lagungarri izanak garela diru askorik ez genuenean; jada lagungarri izan ginela gure artean ia profesionalik ez zenean, Administrazioari bere erantzukizuna gogorarazten genionean, herritar solidarioen bilgune ginenean, ahotsik ez zutenen ahots ginenean...

Bizi berri izan dugun etapan GKEok eta Bizitegik apustu batekin dugu erakunde gisa indartzeko eta eraginkortasuna erakusteko. Orain, ordea, beste egoera baten eta beharrian batzuen aurrean gaude: gure lanaren eta presentziaren eragina erakusteko garaia da, biziraun baino zerbait gehiago egiteko unea; gizartearekin dugun konpromiso

sendoa argi eta indarrez bistaratzekoa. Komunitatearen konfiantza eta interesa izatea da gure erronka.

GKEok eta Bizitegik aitortu beharra dugu ia ez dugula ebaluatzen gizartearen dugun eragina, eta are gutxiago, eragin horren adierazleak erabiliz. Guzti horrekin, onartu egin nahi dugu politika-, gizarte- eta ekonomia-testuinguruko aldaketek –GKEon eragin mailari lotutakoek–, erabiltzaileengan duten eraginetik haratago, aukera berriak eskaintzen dizkigutela, baina baita mehatxuak ere.

Bizitegi 2012... bizitzen historia bat izenburuak nabarmendu egin nahi du, batetik, orrialde hauetan jasotako edukia hurbilago dagoela bizitza errealetatik teoritik baino; bestetik, une honetako egoera historikoa (murrizketak, ahultasun egoeran dauden pertsonen kopuru gero eta handiagoa, kikildutako GKEak...), zigor bat ezik, gonbidapen bat dela, errealismo, ausardia eta irudimen solidarioak erabiltzeko; eta bukatzeko, irakurketa banakoa izanik, irakurlea hunkitzea eta aldaketara biltzea dela txostenen xedea. Ez dihardugu, ordea, GKEon eta Bizitegiren, aldaketari buruz, norberarengan gertatu beharreko aldaketa bati buruz baizik. Horretan, Imanol Zuberoren hitz batzuk gogora ekarri nahi ditut: “Nola izan daiteke jardun bat, kasuon, txosten baten irakurketa, aldaketa-sortzaile, sartu garen bezala irteten badugu? Edo, agian, *besteak* dira beti aldatu beharrekoak? Barne-aldaketa ez da GKEena, norberarena baizik. Ez da, ordea, asebetetze pertsonalera edo erakundearen beraren iraupenera bideratutako barne-aldaketa, kanpoan dagoena aldatzera bideratutakoa baizik. BARNE-aldaketa bat, KANPO-aldaketarako”.

Bukatzeko, bi ohar baino ez. Batetik, eskerrak eman nahi dizkiot Bizitegiri, bere atzoko eta gaurko historiagatik, bai eta Esplai Fundazioari eta Imanol Zuberori ere, beren hausnarketengatik; bestetik, eskerrak eman nahi dizkizuet txosten hau *lan-jantzia* soinean duzuela irakurriko duzuen guztioi, aurkakoa pentsa daitekeen arren, irakurtzea zaila izan daitekeelako, *Bizitegi 2012... bizitzen historia bat* delako.

XABIER ZIPITRIA

BIZITEGIKO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN PRESIDENTEA

Aurkezpena

BIZITEGIk Bilboko Otxarkoaga auzoan hasi zuen bere jarduna komunitate-lanean; 1980. urtean, zehazki. Geroago, 1988an, irabazi-asmorik gabeko elkarte bihurtu zen, eta 1997an Balio Publikoko Entitatea zelako aitortpena jaso zuen.



XEDEA

Gure elkarte erabiltzailez, bazkidez, boluntarioz eta profesionalaz osatuta dago, eta Bizkaian bazterketa-egoera larrian dauden pertsonak gizarteratu nahi ditu, kolektibo horietan zuzenean esku hartuz, eta gizarte sentsibilizatzeko, egoera bidegabeak salatzeko, eragin politikoa izateko eta, azken batean, gizarte bestelakotzeko nahiz egiturazko aldaketak lortzeko ekimenen bidez.

IKUSPEGIA

Bizkaiko elkarte erreferentziala izan nahi dugu bazterketa-egoera larrian dauden pertsonak babesteko jardun-eremuan. Horiek horrela, gogoeta-prozesuak, ikerketa nahiz etengabeko berrikuntza sustatu gura ditugu, eta gizarte-aldaketa hori xede duten foro eta sare nagusietan gogoz parte hartzeko prest gaude.

BALIOAK


- **ELKARTASUNA**, jarrera gisa, gizarte bidezko eta berdintasunezko baten alde lan egiteko.
- **PERTSONEN BEREZKO BALIO BEREZIA** aldarrikatzen dugu.
- **PROFESIONALITASUNA**, lan eta jarrera eraginkorrak izatea erabaki baitugu.
- **BOLUNTARIOTZA**, gizarte solidario baten konpromisoaren adierazle.
- **ARDURA**, nork bere buruaren jabe izateko eta geure bizitzaren eta hazte-prozesuaren protagonistak izateko.
- **PARTAIDETZA**, bai pertsona bakoitzak bere prozesu propioan izan beharrekoa, bai talde eta elkarten prozesuetan izan beharrekoa.

Bizitegi proiektua errealitate egiten duen lantaldea bazkideek, boluntarioek, profesionalak eta praktiketan diharduten pertsonak osatzen dute.

Bizitegiarentzat funtsezkoa da pertsonak [zaintzea](#) eta pertsonen [hazten laguntzea](#), pertsonak baitira Elkarteen motoren balio nagusia. Horregatik, sustatzen diren jarduerak [trebakuntza](#), [garapen pertsonala](#) eta [profesionala](#) dituzte helburu, 1.901 lan-ordu, 77 lagunen partaidetza tarteko direla (guztizkoaren % 74).

Garapenerako eta trebakuntzarako jardueren artean, hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Banakoen eta taldeen Bidelaguntza Prozedurak
- EFQM eredua eta prozedura bidezko kudeaketa
- Jardun profesionalari modu osasungarrian aurre egiteko tresnak. II. maila
- Plangintza eta ebaluazioa
- GIB
- Ebaluatzaileen Kluba. Euskalit
- Psikopatologiara hurbilketa eta laguntza-tresnak
- Euskalduntze Planeko trebakuntza-jarduerak
- Immigratzaileei laguntza
- ...




Antolakuntza-egitura



Etixerik Gabekoak programa




Bilboko kaleetan jarraituki bizi diren, narriadura pertsonaleko egoera kroniko larriak dituzten eta gizartean dauden baliabideak eskuratzeko arazo handiak dauzkaten pertsonen laguntzen die.



* Udal-zerbitzua. Bilboko Udala

ERABILTZAILEEN ASEBETETZE MAILA




LAGUNTZA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA




Droga-mendekotasunen programa



Programak gizarteratzeko bidea eskaintzen die gizarte-bazterketa jasaten dute pertsonei, batez ere droga-mendekotasuna dutenei eta/edo buru-osasuneko arazoak dituztenei.



ERABILTZAILAEN ASEBETETZE MAILA



OKUPAZIO-INDIZEA

% 92

% 87

% 93

% 88

LAGUNTZA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA

41

33

11

12



Errekaldeko eguneko zentroa

Uribarriko eguneko zentroa


Peñaskaleko pisua

Mina del Morro pisua


Programa dibertsifikatua



Dibertsifikatua etengabeko zaintzako komunitate-programa bat da, bazterketa-egoeran edo egoera horretan erortzeko arriskuan egon eta arazo nagusia buruko gaixotasun larria izatea duten pertsonen beharrei erantzuten ahalegintzen dena.



ERABILTZAILEEN ASEBETETZE MAILA



OKUPAZIO-INDIZEA

% 100

% 99

% 96

% 100

% 96

% 100

LAGUNTZA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA

17

37

34

7

50

7



Erreabilitaziorako eguneko zentroa

Iruminetako eguneko zentroa

Zizerueneko eguneko zentroa

105 eguneko zentroa


Babestutako pisu-sarea

Iruminetxeko mini-egoitza

Kudeaketa-mugarria	
1997	Kalitate arloko trebakuntzan lehen urratsak
1999	Irabazi asmorik gabeko erakundearen Ekintza Trebakuntzan partaide. Euskalit
1999	Erabiltzaileen asebetetzea. Urtero
1999	Profesionalen asebetetzea. Urtero
2000	Bikaintasuna helburu hartuta lan egiteko apustu sendoa. EFQM eredua aukeratzea, kudeaketa eredutzat
2000	Autoebaluazioa / EFQM ebaluazioa 2000/ 2005/ 2006/ 2009
2001	Kalitatearekin Konpromisoa diploma, Euskalitek emana. 2001/ 2009
2003	Kalitate arloko trebakuntza Elkarteko kide guztientzat
2004	Lehen Plangintza Estrategikoa 2005-2009
2005	Prozedura-mapa
2005	Aginte Taldea osatu
2007	Lidergo Plangintza eta lidergoaren ebaluazioa. Urtero
2008	Euskalit Ebaluatzaileen Klubean sartu. Kudeaketa-taldeko kide. 2008/ 2009/ 2012
2008	Boluntarioen asebetetzea. Urtero
2009	Euskalit kanpo-alderaketa
2009	Bigarren plangintza Estrategikoa 2010-2012/ 2013
2010	Bidelaguntza-eredua
2010	Banako plangintzen metodologia
2010	Prozedura-maParen berrikusketa / Prozeduren berrikusketa
2010	Erakunde finantzatzaileen asebetetzea. Urtero
2010	Lehen 5S proiektua
2010	Euskaliten kanpo-ebaluazioetan partaidetza, ebaluatzaile gisa
2011	Bekadunen eta praktiketan dauden asebetetzea. Urtero
2011	Elkartearen asebetetzea. Urtero
2012	Euskalduntze Plana

Gure kudeaketa ereduak **Bikaintasunaren EFQM eredua** hartzen du erreferentziatzat. Eredu horrek premisa hau du oinarri: “Erakunde Bikainek errendimendumaila gorenak erdiesten eta mantentzen dituzte, eta horretan, interes-taldeek haiengandik espero dutena lortzen edo gainditzen dute”. Prozeduren mapan grafikoki jasotzen da nola antolatzen den Bizitegi prozeduren bidez, interes-taldeek (erabiltzaileen, profesionalen, gizartearen...) beharrei erantzuteko.

Prozedura-mapa



Arduradunen Topaketa



Ebaluazio- eta planifikazio-trebakuntza




Prozedura bidezko kudeaketa

Bidelaguntza-eredua

Bidelaguntza-ereduaren helburua gizarteratze-prozesuak erraztea da, horretan ari diren pertsonen autonomia handiagoa eta bizi-kalitate hobea izan dezaten.

- **Integrala**, pertsonaren bizitzan une oro eragiten duten alderdi guztiak hartzen ditugulako kontuan.
- **Etengabea**, pertsonari bere gizarteratze-prozesuan zehar laguntzen diogulako, bere iragana eta etorkizunerako itxaropenak kontuan izanik; gure bizi-prozesua ez delako inoiz jadanik *egindako* errealitatea, etengabeko bidaia baizik.



Zerbitzu-sarearen bidez banako nahiz taldeko **prestazioak** eskaintzen ditugu, helburu hori lortzen laguntzen dutelakoan. Pertsona bakoitzari eskaintzen zaionak doitu behar du haren ezaugarrietara eta bizi duen egoerara, horrez gain **Banako Plangintza Orokor** batek bideratua izan behar du, plangintza horrek zehazten baitu emango den laguntzaren esparrua. Jarraian, Bizitegiren Banako Plangintza Orokorren dimentsioak jaso dira, bai eta prestazioen/jardueren tipologiak ere. Jarduerok zerbitzu-sarean egiten dira eta eragin zuzena dute pertsonaren funtsezko eremuetan.

EREMUA: EKONOMIKOA, JURIDIKOA ETA LANEKOA	
1	Egoera ekonomikoa
2	Lanbidea - Lana
3	Egoera juridikoa eta eskubideen titulartasuna eremu ekonomikoan, lanean eta etxebizitzaren eremuan
EREMUA: BIZIKIDETZA	
4	Etxebizitza-egoera
5	Harremanetarako aukera, lotura afektiboak, banakako eta familia-elkarbizitzarako gizarte-laguntza jasotzea sare nagusi eta bigarren mailakoetatik
6	Harreman pertsonalak, bizikidetzakoak, familiakoak
7	Eguneroko bizitzaren antolaketa
8	Elkarbizitzako harremanak eguneroko bizitzan sortzen diren hainbat testuingurutan

EREMUA: PERTSONALA	
9	Gaitasunak – Gizarte-trebeziak
10	Hezkuntza – Formazioa – Informazioa – Trebakuntza
11	Bizi-dinamismoak
12	Aldaketarako gaitasuna – Babes-sistemen erabilera
EREMUA: SOZIOSANITARIOA	
13	Osasun-egoera
14	Buru-osasuna
15	Droga-mendekotasuna – Adikzioak
16	Ezgaitasuna, mendekotasuna
EREMUA: GIZARTEA	
17	Gizarte-onarpena eta eguneroko komunitate-elkarbizitza
18	Harremanak, gizarte-ingurunea eta inguruneke arauetara egokitzea
19	Besteekiko harremanak, eta parte hartzea gizartearen

Bizitegiren Banako Plangintza Orokorreko pertsonaren funtsezko eremuak,
Eusko Jaurlaritzaren *Gizarte Bazterketaren Diagnostikoa eta Balorazioa* egiteko *Tresna Tekniko Bateratua* oinarrituta.



"Argiñanotarrak" jarduerak



Bizitegiren Eguneke Zentroen erabiltzaileek egindako produktuak



Oñara txangoa

FUNTSEZKO EREMUAK			PROGRAMAK		
	EKONOMIKOA, JURIDIKOA ETA LANEKOAK		PERTSONALA		SOZIALA
	BIZIKIDETZA		SOZIOSANITARIOA		ETXERIK GABEKOAK
	DROGA-MENDEKOTASUNAK		DIBERTSIFIKATUA		
	Eskubideak eta betebeharrak	Banakako eta taldekako aholkularitza; laguntza eta jarraipena egoera judizialtan; dokumentazioa eta prestazio ekonomikoak kudeatzeko eta tramitzeko laguntza			
	Lanpostu bati begirakoak	Kartoi-tailerra, larru-tailerra, Bizidenda arropa-denda			
	Lan eta/edo prestakuntza arloko orientazioa	Lan- eta trebakuntza-orientazioa; lan-egoeraren jarraipena; aktibazio-tailerra			
	Erreferentzia	Pertsonaren gizarte-sarearekin koordinazioa: erreferentzia-baliabideak, familia... Dirua administratzea.			
	Lotura	Zerbitzuan hartzea, jaialdiak eta ospakizunak			
	Batzarrak	Egoitza-zerbitzuetako eta Eguneko Zentroetako batzarrak			
	Aisialdiko jarduerak eta jarduerak ludikoak	Parte-hartzea bultzatzeko eta aisialdirako heziketa-tailerra; kafe-solasaldia, zine foruma, lehiaketak, etab.; irteera kulturalak, ludikoak, etab.; oporrak			
	Eguneroko bizitzako jarduerak	Ingurumenarekiko sensibilizazioa; higiena, itxura, norbere burua zaintzea; elikadura; etxeke lanak			
	Teknikoak, instrumentalak	Kartoiak, arropa, larrua eta zura lantzeko tailerrak			
	Prestakuntzarakoak	Eskola-laguntza, informatika			
	Gizarte-gaitasunak, gaitasun kognitiboak eta instrumentalak	Errehabilitazio kognitiboa, gizarte-trebeziak, aldaketarako motibazioa, antzerkia; sormena, artea, kultura, musika, marrazketa, pirograbatua, eskulanak; josi, garbitu, bildu, trikotatu, lisatu eta sailkatu			
	Osasuna	Informazioa, orientazioa, eta osasun-bidelaguntza; tratamenduaren jarraipena: bidelaguntzak, ospitalizazioak, sendagaien administrazioa; osasun-heziketa: kanpainak, hitzaldiak, monografikoak; kanpainak eta osasun-protokoloak, erizaintza, kirola, baratze ekologikoa, prebentzioa, erreflexoterapia, erlaxazioa			
	Komunitatearen lana	Auzorako lana: jardunaldiak, jaiak, auzolana, tapoi-bilketa			
	Sentsibilizazioa/salaketa	Salaketa-ekintzen prestakuntza eta bertaratzea			

Bizitegi zerbitzuetako jarduerak

Komunitatearen lana, sentsibilizazioa eta salaketa

Salaketa-ekintzak

Salaketa-ekintzak gizarte-eskubideen aldeko plataformekin, gizarte arloko murrizketen aurka...

-Bizitegi parte-hartze aktiboa izan du [Herri Ekimen Legegilean](#) (HEL); bai eta ordainean ematea susta-

tzeko, kaleratzeak gelditzeko eta alokairu soziala bultzatzeko beste zenbait ekimenetan ere.

-Hirugarren sektoreko sareekin batera, lan egin dugu [Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta \(DBE\)](#) galdu dutenek laguntza hori jasotzeko eskubidea berreskura dezaten.



Inauteriak



Udako oporraldia, Leonen



Uribarri Eguna

■ Nazioarteko Egunetan partaidetza

Pobreziaren Kontrako Eguna eta Etxerik Gabekoen Munduko Eguna.

■ Kultura Arteko Topaketaren XI. edizioa

Harresiak Apurtuz plataformak Gasteizen antolatutako Kultura Arteko Topaketan parte hartu dugu.

■ Beste Bi kontzentrazioak

Beste Bi plataformak deitutako kontzentrazioetan parte hartu dugu, etxerik gabeko pertsonen errealitatea ageriko egiteko.

■ IKUSEZINAK – Ikusezinen batzarra

Ikusezinak Bizitegitik bereizi dira, taldearen beraren ahalmentzeak eta ekimenak eraginda.

■ Bilboko Artisau Azokaren 29. edizioa eta Getxoko XXVIII. Nazioarteko Folk Jaialdia

Bizitegiren eguneko zentroetan egindako produktuen erakusketa eta salmenta.

■ Tapoi-bilketa

Zailtasunak dituztenak zailtasunak dituztenei laguntzen. Tapoi-bilketa Garmitxa Elkartearen alde. Elkarrekin egiten die diagnostikorik gabeko gaixotasun baten ondorioz oinarritzko formulen bidez elikatu behar diren haurrei.

■ Margolanen eta pirograbatuen erakusketa, Errekaldeko auzo-etxean

Errekaldeko eta Uribarriko Eguneko Zentroetan programatutako jardueratan parte hartzen duten erabiltzaileek egindakoa lanak.

■ Uribarri Eguna eta Errekaldeko Elkarrekin Azoka

Eguneko Zentroetan egiten diren lanen erakusketa egin dugu; bai eta lantegi txiki bat antolatu ere, larruzko objektuak (diru-zorroak eta giltzatakaok) nola egin erakusteko.

■ Uribarriko eta Otxarkoagako Jaiak

–Balkoi eta erakusleirio loratuen lehiaketa eta gymkhana bat antolatu ditugu. Horrez gain, Uribarriko jaietako argazki-lehiaketan eta koadrilen jaitseirari parte hartu dugu.

–Otxarkoagako Merkatuekea.

■ Otxarkoagako Olentzero

Auzoarentzako txokolate beroa prestatu genuen.

■ Otxarkoagako haur-jardunaldiak

Auzoko beste elkarrekin batzuekin batera haur-jardunaldiak antolatu ditugu aurten ere Bizitegik.

■ Euskadiko Literatura Solasaldi Dialogikoen II. Topaketa

■ MUNDUKO ARROZAK 10. edizioa

Kulturartekotasuna eta partaidetza sustatu nahi dituen ekimena.

■ Aste solidarioa

Droga-mendekotasunen programan, *Aste solidarioa* antolatu da, uztailaren:

–Animaliak babesteko bi elkarrekin lankidetzak, Santurtziakoarekin eta Zorroakoarekin, animalien zaintza lagunduz.

–Gazteluondo Egoitzarekin lankidetzak, egoitzako adineko pertsonekin jarduerak eginez.

■ Berta Proiektua: terapia animaliekin

Programa dibertsifikatuaren baitan lankidetzan dihardugu animaliak hartu eta adopzioan emateko zentro batekin, erabiltzaileak animaliekin hurbiltzeko, eta horrela, afektibitatea, lotura, komunikazioa eta abar sustatzeko.

■ Hiruko Futbol Txapelketa

Bizitegiren, Sortaraziren eta Dama Apostolikoak / Giltzaren artean.



Munduko Arrozak



Gazteluondo Egoitzan jarduerak



Errekaldeko Elkarrekin Azoka

Jardunaldiak

■ **Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europako XVIII. Astea**, jardunaldi bat antolatu dugu, *Kudeaketa parte-hartzailearen eredu eraginkorra* izenburupean, Bizitegiren parte-hartze esperientziei buruz. Atsegin handiz hartu genituen 24 erakundetako 48 kide.

Parte hartu dugu, besteak beste, hizlari edo dinamizatzaile gisa...

■ **EAPN Asturiasek** Avilésen antolatutako *Parte hartzen ikasiz Gizarte Partaidetzarako Jardunaldian*. Bizitegik, Euskadiko EAPNren ordezkari gisa, jardunaldia dinamizatu eta bere parte-hartze esperientzien berri eman du.

■ **Espainiako neuropsikiatria eta osasun metalen arloko profesionalen erakundeak, AENek**, Gandian antolatutako *Giza Eskubideen Arloko IV. Jardunaldietan*. Bizitegik *bazterketaren mahaian* parte hartu du, komunikatu bat aurkeztuz: *Etterik gabeko pertsonen laguntza psikiatrikoa, Bilbon*.

■ *Gaixotasun mental larriak dituztenak gizarteratzeko praktika egokiak* izenburupean, **Argia Fundazioak** Deustuko Unibertsitatean antolatutako **III. Jardunaldi Teknikoetan**. Bizitegik hitzaldi bat eman du: *Etterik gabeko gaineratzeko esku-hartzea Bilbon, errentzia apaletik*.

Horrez gain horma-irudirik onenaren saria irabazi du, *Gizarteratzea, komunitatearen ekarpen-jardueren bidez* lanarekin.

■ **Birgaitze Psikosozialerako Elkarleen Espainiako Federazioaren IV. Kongresuan**, Zaragozan.

Bi horma-iruditan aurkeztu ditugu gure jardunbide egokiak, esku-hartzeari lotuta:

–Bizitegiren Banako Plangintza Orokorra, birgaitze psikosozialerako ebaluazio- eta neurketa-tresna.

–Berreskuratzeko hiri-garraiobideak, antzerkiaren bidez.

■ **Garuneko Patologia Dualen Urteko XIV. Jardunaldietan**, Madril. *Kronikoatsuna droga-mendekotasunen zerbitzuetan: erroka berriak* aurkezpena eta *Patologia Dualei Arreta, Kronikoatsuna droga-mendekotasunen zerbitzuetan: erroka berriak* horma-irudia agertu ditugu.

■ **Gizarte Hezitzaileen Estatuko VI. Kongresuan**, Valentzian, *Etterik gabeko gaineratzeko esku-hartzea Bilbon, errentzia apaletik* hitzaldiarekin.

■ **EAPN** elkarreak Malagan sustatutako **Pobrezia- eta bazterketa-egoeran dauden parte-hartzerako estatuko III. topaketan**. Topaketa horren xedea izan da parte-hartzerako espazioak sortzea, iritziak, ideiak eta proposamenak partekatzeko.

■ **EAPN Euskadiren** eskutik, *Parte-hartzea, gizarteratze-esparruan* jardunaldian, *Ikusezinen sorrera-esperientzia* aurkezpenarekin.



Jardunaldi bat, Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europako Astea



Gizartearen parte-hartzea jardunaldia. EAPN



Argia Fundazioaren Jardunaldi Teknikoak

Konpromisoa kudeaketa aurreratuarekin

■ Euskaliten Ebaluatzaileen Klubeko kide gara, eta Eusko Jaurlaritzak ematen dituen zilarrezko eta urrezko Q sarietara aurkeztu den erakunde baten kanpo-ebaluazioko lanetan parte hartu dugu.

■ Kudeaketa taldeko beste kide batek Trebakuntza jaso du Euskaliten Ebaluatzaileen Kublean sartzeko.

Ezagutzak, esperientziak eta abar partekatzen

■ Gure Esku-hartze eredia ezagutzera eman dugu, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntza Practicumean.

■ Gure Banako Plangintza Tresna aurkeztu dugu, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak antolatutako Adierazleen Mintegian.

■ Banako Plangintzari buruzko Jardunaldi bat antolatu dugu, Caritaseko langileentzat.

■ Bazterketari buruzko modulu bat eman dugu (20 ordu), Psikologoaren Elkargoko Psikologia Praktikorako Eskolan, gizartean esku-hartzeko psikologiaren sailean.

■ EDE elkarteak antolatutako Erakunde eta proiektu sozialen kudeaketa ikastaroko ikasleen bisitaldia, Bizitegi eta bere kudeaketa-eredua ezagutzeko.

■ Bakun Itzulpenak enpresako langileen bisitaldia, Bizitegi ezagutzeko.

■ Tartanga Goi-mailako Lanbide Heziketa Institutuko ikasleen bisitaldia, Bizitegi ezagutzeko.

Argitalpenak

■ Pertonekin berriz aurkituz artikulua, EAPN sarearen Gizarteratzearen aldeko borrokaren erronkak argitalpean.

■ Lidergo-eredu bat abiaraztea. Bizitegiren esperientzia argitalpena, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak.

Enplegu-programak

■ Gizalan enplegu solidarioaren programaren azken deialdian parte hartu dugu, modalitate horri jarraiki, Bizitegin postu bat emanez. Pertsona horren Bizidenda Bizitegiren arropa-dendaren kudeaketan lagundu du.

Bekak eta praktikak

■ Aurten, 6 lagun praktikatan aritu dira Bizitegiren esku-hartze programetan (2 psikologian, 3 gizarte-heziketan eta 1 gizarteratze-lanetan).

Irratia

■ Lau bider hitz egin dugu irratian, bazterketa, etxerik gabekoak eta komunitatearen parte-hartzea hizpide hartuta.



Pobrezia- eta bazterketa-egoeran dauden parte-harzerako estatu-topaketa. EAPN



Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak antolatutako Adierazleen Mintegia



EDEko Erakunde eta proiektu sozialen kudeaketa ikastaroko ikasleen bisitaldia



Aliantzak

- Lankidetza Hitzarmena **Urbegi** gizarte ekimeneko erakundearekin

Sareak

- Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkartea (**Gizardatz**)
- Birgaiketa Psiko-sozialaren Euskal Elkartea (**ASVAR**)
- **Fiare** fundazioa
- Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren Europako Sarearen Euskadiko Zuzendaritza Batzordeko kide da (**EAPN**)
- **Beste BI** plataforma
- Drogaren mende dagoenari laguntzeko elkarte eta entitateen Espainiako Batasuna (**UNAD**)
- Etorkinen aldeko Euskadiko GKEen koordinadora (**Harresiak apurtuz**)
- **EZETZ!** indarkeria matxistaren aurkako elkarten euskal sarea
- Euskadiko gizarteratzearen aldeko sareak (**Ekain**)

Foroak

- Bikaintasunerako Euskal Fundazioa (**Euskalit**)
- Boluntariotza eta Parte-hartzerako Agentzia (**Bolunta**)
- Lankidetza Hitzarmena Bilboko Udalarekin, etxerik gabeko pertsonak gizarte-zerbitzuen bidez erroldatzeko prozedurak garatzeko
- **Innovalan** proiektuan parte-hartzea (buru gaixotasuna duten pertsonak lan munduan sartzen laguntzeko ekimena)
- **Caritas** eta **CEAR-EUSKADI** Batzordearekin batera egin-dako hitzarmena, dokumentazio-premiei elkarrekin erantzuteko sistema osatzeko
- **Uribarri Auzolanean**, Uribarriko herri-taldean, elkarten-eta mugimenduen- aliantza, elkarlanaren bidez auzoko beharrei erantzutea helburu duena. "Denok batera, Uribarri aurrera"
- **Errekalden kaleratzerik ez!**



Innovalan - Erabiltzaileek dinamizatutako tailerra
Jardunaldi irekiak Zamudioko Teknologia Parkean



Beste BI kontzentrazioa. Etxerik gabekoen
duintasunaren aldeko *Flashmoba*



Errekalden Kaleratzerik ez! kontzentrazioa

Txosten ekonomikoa

2012. urtean emaitza hauek eman ditu erakundearen gastuen eta sarreraren balantzeak:



GASTUAK 2012	GUZTIRA	%
Erosketak	161.839	% 4,7
Alokairuak	58.510	% 1,7
Hornidura / beste zerbitzu batzuk	272.278	% 7,8
Konponketak/garbiketa	77.028	% 2,2
Aholkulariak/prestakuntza	76.159	% 2,2
Zergak	1.499	% 0,0
Langileen soldatak	2.751.699	% 79,1
Finantza-gastuak	3.668	% 0,1
Diru-laguntzak	1.087	% 0,0
Aparteko gastuak	288	% 0,0
Beste kudeaketa-gastu batzuk	1.122	% 0,0
Inbertsioen amortizazioa	73.764	% 2,1
GASTUAK GUZTIRA	3.478.941	


labilgetu materialeko inbertsioen gastuak 10.919

SARRERAK 2012	GUZTIRA	%
Elkartearen funtsak	341.474	% 10
Erabiltzaileen ekarpenak	266.187	% 7,8
Salmentak	31.238	% 0,9
Dohaintzak eta laguntzak	44.049	% 1,3

Kanpoko finantzazioa	3.021.378	% 88,0
Hitzarmenak	2.849.305	% 83,0
Foru Aldundiko Gizarte Ekintza	1.446.124	% 42,1
Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila	835.143	% 24,3
Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza	536.177	% 15,6
Gizalan	22.984	% 0,7
Tutoretza Erakundea	8.877	% 0,3
Diru-laguntzak	172.073	% 5,0
EJ Droga-mendetasunak	75.920	% 2,2
BBK	12.000	% 0,3
SPRI	12.000	% 0,3
Tripartita fundazioa	8.393	% 0,2
EJ kontratazioarako diru-laguntzak	41.860	% 1,2
Victor Tapia fundazioa	21.900	% 0,6

Finantzako diru-sarrerak	4.311	% 0,1
Diru-sarrera bereziak	5.199	% 0,2
Beste sarrera batzuk	661	% 0,0
Ekitaldiaren emaitza jakitean intsuldatu	58.957	% 1,7
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	3.431.979	

GASTUAK 2012



SARRERAK 2012

